Pako Aristi: «Ez zuten Iñaki hil nahi, Etxabe abizena baizik»

Iñaki bota dau' ikerketa liburuak aurkeztu zuen ekainean Pako Aristik. Iñaki Etxaberen hilketa eta garai hartako beste zenbait kasu aztertu ditu. Aristik uste du Etxaberen hilketa egun berean izandako atentatu baten «mendeku» izan zela.

Pako Aristi, ekainean Donostian, liburuarekin aurkezpenean. GORKA RUBIO / FOKU

Julen Ugartemendia Carcedo
EGUNERATUA 07/09/2025 · 09:00
Entzun
EKARRI ORAIN ZUK ARTIKULUA

«Gizon on bat, inongo parte hartzerik ez zuena ETAn, hamazazpi balaz josi zuten bere tabernan». Hori adierazi du Pako Aristi (Urrestilla, Gipuzkoa, 1963) idazle eta kazetariak Iñaki Etxaberi buruz. 1975eko urriaren 5ean hil zuten, Kanpazarren (Elorrio, Bizkaia). Ekainean aurkezturiko *Iñaki bota dau'* liburuan, Iñakiren eraileta eta garai hartako beste zenbait kasu aztertu ditu. Gure Bazterrak kultura elkarteak aurkeztu zion proiektua, eta idazleak uste du Etxaberen hilketa «Euskal Herriaren historiaren pasarte garrantzitsu bat» dela, «ezkutatua» egon dena. Etxaberen hilketa «estatu terrorismoaren belaunaldi berriaren lehen ekintza» izan zen Ingo Iruin abokatuaren arabera, Aristik gogoratuzi duenez. Etxabek bi analia izan zituen ETAn: Juan Jose Etxabe eta Joakin Etxabe. Juan Jose ETAko burrugintzan ibili zen 1971ra arte, eta 1978an hura ere hiltzen saiatu zen, Donibane Lohizunen (Lapurdi). Aristik argi du: «Ez zuten Iñaki hil nahi, Etxabe abizena baizik».

1975eko irailaren 27an, Franco hiltzear zegoela, erregimenak azken fusilamendualk egin zituen. Jon Paredes Manot Txiki eta Angel Otaegi etakideak fusilatu zituzten, FRAPeko hiru kideekin batera. Aristik azaldu du hasieran ETA «mugimendu zabala» eta «kulturala» zela, eta gizartean «babes handia» lortu zuela. Nabarmendu du frankismoa «erregimen oso» basatia, «errepresiboa eta totalitarioa» zela, eta adierazi du testuinguru horretan euskal gizartearek, orokorrean, ETA «oso begi onez» ikusten zuela. Aristik diotenez, Txiki eta Otaegiren fusilamenduen ondoren, Politiak «erantzun bat» espero zuen.

Urriaren 5eko goizean, biru guardia zibil bil zituen ETAk Arantzazun (Oñati, Gipuzkoa). Guardia zibilak Aitzabal muinoaren gainean jarritako ikurrin bat kentzera joan ziren, eta beherakoan lehergailu batek entanda egin zuen haien autoaren aurka. Ingeruko herrietako bitartekoek «usteko» mendeku bat usaintzen» zutela irakur daiteke Aristiren liburuan. Etxabe familia ere urduri zegoen.

Iñaki, bigarren aukera

«Etxabe bi baino lehenago, Juan Zelaiarengana joan ziren». Aristik kontatu du Iñaki Etxaberen hilketa ikertzen ari zirenean konturatu zirela egun bartan Etxabe «bigarren aukera» izan zela. Lehenengoa Juan Zelaia izan zen. Enpresaria eta «euskal kausaren aldeko mezenas» bat zela azaldu du Aristik: «la jende guztiari ematen zion diru laguntza: EAJri, eker abertzaleari, sortzen ari ziren egunkariei, ETAri ere laguntza ematen zion...».

1970eko hamarkadaren hasieran, Zelaiaren Larraintzarko (Araba) etxea zelataztean hasi ziren. Poliziak jomugan zuen Zelaia, baina «inoiz ez zuten haren aurkako froga erabatekorik eduki», liburuan diocenez. Urriaren 5 bartan, 18:00 aldera, Zelaiaren etxe ingurura auto bat gerturatu zen. Aristik adierazi du jende gehiagorekin zegoelako ez zutela hil Zelaia. Egun gutxi barru Ipar Euskal Herrira joan zen, urte eta erdiz ez itzultzeko. Denbora horretan, Zelaia bigarren aldiz hiltzen saiatu zen, Donibane Lohizunen.

> «Estatu terrorismoak bi helburu ditu: batetik, etsaia eliminatzea, eta, bestetik, etsaiari laguntzen diotenak beldurtzea»

Lehenengo planak buts egin onderen, 23:00 aldera, Iñaki Etxabe hil zuten Kanpazarreko Etxabe-Etxea ostatuan. Aristik uste du «Arantzazuko mendekuaz» izan zela Etxaberen hilketa, eta estatu terrorismoko kasu bat dela. Horren helburuak azaldu ditu: «Estatu terrorismoak bi helburu ditu: batetik, etsaia eliminatzea, eta, bestetik, etsaiari laguntzen diotenak beldurtzea».

Aristik liburuan azaldu du «inoiz» ez dela jakingo nork hil zituen Iñaki Etxabe eta German Agirre —Etxaberen hilketatik asaldurea, Legutioko (Araba) kuarteletik gertu bilda agertu zen 38 urteko taxilaria—, baina bai zer erakundekoak ziren: «Espainiako segurtasun zerbitzuetako agenteak izan ziren, Barne Ministerioaren agindutara aeuden Guardia Zibileko agenteak, agian ultraeskuindar eta mertzenario batzuen laguntzarekin».

Etxabe hil zuten egun berean, Josefi Sagastizabal atxilotuta zegoen Germinako kuartelean. Sagastizabalek adierazitakoaren arabera, egun hartan, guardi aldera, Francisco de Burgos guardia zibila kuartelera iritsi zen; metraileta bat mahai gainean utzi, eta «bat gutxiago» esan zuen. Ikertu duen horretan oinarrituta, Aristik bipotesi nagusi bat garatu du: Juan Atares Guardia Zibilaren V. Barrutiko ofizial jeneralak «erantzun bat emateko» agindu zion Manuel Hidalgo Germikako kuarteleko agintari nagusiari, hark «konfiantzazko gizon bati» deitu zion, De Burgosi, eta hark, beste bi gizonekin, «ekintza gauzatu» zuen.

Zigorgabetasun osoa

Aristik uste du frankismoko segurtasun indarrek «zigorgabetasun osoa» zutela. Arantzazuko atentatuaren ondorengo egunetan Oñatin gertatutakoa azaldu du: hamabost egunean ehun pertsona baino gehiago atxilotu zituzten. Garai hartan jendea «espaloi baten baimenik gabe» atxilotu zitekeela esan du Aristik, eta atxilotutako gehienak «torturatu» egiten zituztela.

> «Frankismoan ez zen inoiz polizia bat epaitu egindako astakeriengatik. Eta frankismo onderen ere, oso gutxi»

Oñatin atxilotu zituzten haietako batzuk Donostiara bidali zituzten. 15 urteko mutiko bat aipatzen du Aristik liburuan: zazpi egunez eduki zuten Intxaurrondoko kuartelean, eta bertan, besteak beste, bainuontziaren tortura egin zioten. Honela azaltzen da liburuan tortura hori: «Burua azpiliean sartzen zioten, eta dardaraz zinenean ateratzen zituen. Pixa egiten zuten uretan, zigarroak jauntzitzen zituzten, janari hondurrak, tu egiten zuten... Botaka egiten zenuen, eta berriro sartzen zituzten burua azpilean». Gina Eskubideen Europako Auzitegiak hainbat aldiz egin dizkio ohartarazpenak Espainiako Estatuari, atxilotutakoen tortura salaketak ez ikertzeagatik.

«Frankismoan ez zen inoiz polizia bat epaitu egindako astakeriengatik. Eta frankismo onderen ere, oso gutxi», adierazi du Aristik. Idazleak kontatu du gaur egun ez dagoela Etxaberen hilketaren autopsiarik, ez Guardia Zibilaren atestaturik eta ez sumariorik. Edo ez dagoela esaten dutela. Aristiri «oso zalla» iruditzen zaio Etxaberen hilketa berriz ikertzea, eta uste du horrelakoetan Espainiako Estatuak estrategia jakin bat erabiltzen duela: «ahanzturan hiltzen uztea».

GAIAK

Euskal Herria · Euskal Herriko gatazka · Memoria historikoa · Frankismoa · Euskal Herriko politika

Kazetaritza propio eta independentearen alde

Desinformazioa nagusi den garai hauetan, euskaldunoi informazio fidagarria libre eremuka da beharrezkoa. Berriak 2025 amaieraraxe 3.000 irakurleren babes ekonomikoa behar dugu.

Egin zure ekarpena

IRUZKINAK

Ez dago irudirik

Irudiak ikusi egin

ORDENATU DATA

INTERESGARRIA IZANGO ZAIZU

Estatus berria: sukalde barruko elefantea mugitzeko garaia

Palestinaren aldeko ekartasun oldeak Euskal Herria zeharkatuko du

Tekla arteko langileria

NABARMENDUAK

Lide Hernando eta Mixel Ducau: Ikertzaile gortu gabe

Julia Mengolini: «Emakumeok aridoto arriskotsua bat hartu dugu feminismoa prozesu politizatzaile bat izan da»

Pablo Gonzalez: «Akusazioik eta frogarik gabe bi urte eduki naute preso»

Pako Aristi: «Ez zuten Iñaki hil nahi, Etxabe abizena baizik»

GEHIEN IRAKURRIAK

1. UAIk irabazi du Vuelta talderako erdipuntua, eta Vingegaard jarri da hortxe lider
2. Amezketik gauzatzeko bide ugariak
3. Errotxtxuk salbuetsko gaitu
4. PPk «horrizarri do EH Bildu» «laminaun tamani bat» datorrela kualitea «ezencuzen hazterreta» eremanicko
5. Sagarroudaueen gertiperan bertt bai lotuta da

GEHIAGO IKUSI »

Harpidetu Berriaren buletinetara

Mendia · Arratsaldekoa · Goizekoa · Bazkal · Astekaria · Kirika · Kazetaritza

Izena emaiean ere onartutakoan politika onartzen duzu.

Zure posta elektronikoa

Harpidetu

berria

Datuen erabilera anburatsua

Guk eta gure 985 kidek sure informazio personala, zure IP zenbakia, esaterako, prozesatzen ditugu, cookie bezalako teknologiak erabiliz eta zure gailuko informazioak astiten dugu publizitate eta eduki pertsonalizatuak, publizitarean eta edukiaren neurketa, audientzia-ikerketa eta zerbitzuen garapena eskaintzeko. Zure datuak nork eta zertarako erabiltzen dituen hautatzeko aukera duzu. Zure onespena aldatzen edo deuseztatzen ahal duzu edozein momentutan. Cookie deklarazioko edo Privacy Ingguraan kikatuz.

If you allow, we would also like to:
Collect information about your geographical location which can be accurate to within several meters
Identify your device by actively scanning it for specific characteristics (fingerprinting)
Find out more about how your personal data is processed and set your preferences in the details section

Onartu cookie guztiak

Aukeratu

Baztertu cookie-ak

Cookiebot by Usercentrics

Cookiaak kudeatu